

# ESAERA ZAHARBERRITUAK

Deskribapena: Kike herri batean ageri da, zubi bateko horman eserita.

Kike: “Jasotako esaera zaharberrietuen artean honako hauek aukeratu ditugu: lehena, Aitor Gorostizarena da “Artzainaren etxean, Tetra Brik”; bigarrena, Joxe Rojasek bidali digu “Smartphone merkea, nagusiaren nekea”. Mikel Pagadik ere ezin zuen huts egin gure hitzorduan: “Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta “Borges”. Eta azkena, Garuna BorBor-ek bidali digu “Twitterlari gauean, logale goizean”. Esaera zaharrak hankaz gora jarri ditugu tradizioa iraultzea tradiziotzat duen ohiturari jarraiki.”